



Esp. kodea: 2016SAPL0009

Gaia: PLENOA 2016-09-13  
Hasiera eguna: 2016/09/06

## AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko irailaren 13a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko uztailaren 12an eta abuztuaren 30ean egindako bileren aktak onartu ditu.

### **2.- A.E. 56.- Zerrajera esparruaren 1. lur-zatiaren (Aprendices) erabilera nagusia aldatzeko Hiri Antolamenduaren Plan Berezia behin betikoz onartzeko proposamena.**

Osoko bilkurak aho batez erabaki du aipatutako Plan Berezia behin betikoz onartzea.

### **3.- Musakola auzoa 26 - 10. bis-ean dagoen ekipamenduko eraikinaren kalifikazio juridikoa aldatzeko espedientea behin betikoz onartzea.**

Osoko Bilkurak aho batez erabaki du eraikinaren kalifikazio juridikoa aldatzea. Ondorioz, eraikina jabari publikoko ondasun izatetik ondare ondasun izatera pasa da.

### **4.- Hainbat lanposturen balorazio berriak**

Osoko bilkurak aho batez onartu ditu jarraian zehazten diren lanpostuen balorazio berriak:

- Piszinetako monitorea
- Garapen Iraunkorreko Teknikaria
- Hiri zerbitzuen teknikaria

### **5.- 2015eko Kontu Orokorraren espedientea onartzeko proposamena.**

Behin Ogasun Batzordetik pasata eta jendaurreko epean inolako alegaziorik egon ez denez, osoko bilkurak aho batez onartu du, auditoretza txostena ikusita, 2015eko kontu orokorra

### **6.- Ekainaren 30ean 2016 urteko aurrekontuaren egoeraren berri ematea.**

Osoko bilkurak ekainaren 30eko aurrekontuaren egoeraren berri hartu du.

### **7.- TGBak 2016ko 2. hiru hilabeteen onartutako kreditu aldaketen espedientei buruzko informazioa.**

Osoko Bilkurak 2. Hiru hilabeteen onartutako kreditu aldaketa espedienteen berri hartu du.

Arrasaten, 2016ko irailaren 13a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta